

## SANTA TERESA JESUSENAREN IDAZLAN GUZTIAK EUSKARAZ

Bete dira gura ametsak. Fruitu eder bihurtu dira urteetako ahaleginak. Eskuaratean ditut euskaraz, liburu bikain batean bilduta, Santa Teresa Jesusenaren idazlan guztiak. Oraingoan huts egiteko arriskurik gabe esan dezakegu ‘ekinaren ekinez egina’.

*KARMEL* aldizkari honetako irakurleok aspalditik duzue gure asmo ederren berri. Batez ere, itzulpen lanean jardun izan duen Aita Luis Baraiazarrak itzulita, lehen fruitu modura 2012an Santa Teresa Jesusenaren *BIZITZA LIBURUA* (Karmel lekukoak-7) euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu genuenetik.

Santa Teresaren mendeurrenean zehar (1515-2015) aldizkari honetan aparteko lekua egin diogu karmeldar oinutson bizitzaren erreferentzia nagusi dugun Teresaren doktrinari. Hainbat gogoeta-lan eder jarri izan ditugu zuen esku, zuoi guztioi haren mezuaren oihartzun gozoa helarazi nahiez. Aipamen berezia merezi dute Aita Antonio Oleak eskaini izan dizkigun gogoetek (Begiratu, esaterako, *Karmel*, 2015-4, 32-64).

Horrela, Aita Luisek Santa Teresaren gutunak euskaratzen ziharduen bitartean, dagoeneko euskaratuak zituen idazlan nagusiei buruzko berriak plazaratzen joan izan gara aldizkari honetan. Aita Luisek berak aurkeztu izan dizkigu aldizkari honetako ale desberdinetan lan hau egiterakoan izan dituen asmoak eta eragozpenak idazlan bakoitzari dagozkion hainbat berri eta zehaztasun eskainiz.


Oraingo honetan, atalka argitaratutako mezu nagusiak sorta bakarrean bildu nahi ditut eskuartearen dudan liburu ederraren aurkezpen orokor hau egitean. Horretarako, *Karmel* aldizkari honetan lehenago argitaratutako atal batzuk eta nik neuk itzultzaileen elkarrekin eskaturik *Senez* aldizkarirako (2015, 46.zk., 115-135 or.) idatzitako lan luzean eskaintako zenbait berri ekarriko ditut hona.

Hasteko, bada, pozez gainezka nauzuela aitortu behar diuzet hasiera-hasieratik, eskuan txukun argitaratuta dudan liburu bikain honek euskarari nahiz erlijioari aparteko ekarpena egingo diola uste baitut.

Eta aurrera egin aurretik zuen aurrera ekarri nahi dut Karmeldarren liturgia liburuak eskaintzen digun Santa Teresaren Bizitzaren eta Lanaren laburpena:

*Avilan jaio zen 1515eko martxoaren 28an. Karmeldar lekaimeen biziera aukeratu zuen beretzat, baita santutasun bidean aurrerapen handiak egin ere. Baina, onbide horretan oraindik gehiago aurreratzeko gosez, karmeldarren ordena berriztatzea erabaki zuen. 1562an eraiki zuen lekaimeen lehenengo komentua. Eta 1568an eman zion hasiera lekaideen berriztatzeari Durueloko komentua eraikiz. Denerata 32 komentu eraiki zituen. Eta azkenik, Alba de Tormesen hil zen 1582an. Karmeldarren ordena berriztatzeaz gainera, historian zehar sekulako arrakasta izan duten idazkiak idatzi zituen. Hori dela-eta Paulo VI. Aita Santuak 1970eko irailaren 27an Santa Teresa Eliz Irakasle izendatu zuen.*

Aurkezpen labur hau egin ostean, zenbait itaun egin nahi ditut, eskuartearen dugun itzulpenari buruzko nire gogoeta honi muga estuak jartzeko asmoz:



## 1. Merezi izan du Santa Teresaren idazlanak euskaratzeak?

Behar bada, gaztelaniaren munduan murgildurik bizi izanik, norbaitek uste izan dezake ez zela hain beharrezkoa horrelako ahalegin erraldoi bat egitea. *Klasikoak* sorta euskaratzea planteatu zenean antzerako zerbait jarri zen mahai gainean. Argi ikusi zen, alabaina, gaztelaniazko klasikoak euskaraz itzulita izatea, beste hizkuntzetakoak izatea adina edo parekoa zela. Euskarari ohorea emateaz gain, alor berrietako lexikoa jorratu eta maila guztietarako atekak zabaltzeko bidetzat jo zen.

Antzerako itauna egin zion Jon Kortazar jaunak egunkari-rako eginiko elkarrizketan Aita Luisi. Berak honako hau erantzun zion:

*Nigan luzaro izan den asmoa da; hasieran, ez erabakia bartzera eramango ninduen asmo sendo legez, kontzientzian piztu eta itzali jardun ondoren, gebiako seinalerik eman gabe geratzen zen argitxo bat legez baizik. Barruko eta kanpoko eragingarriak izan ditut lan boni ekiteko. Barruan, egitearen alde agertzen zitzaidan arrazoiren baten ondoan, ia beti bandiagoo agertzen zitzaidan kontra. Esaterako, euskaldun guztiok gaztelania dakigunez gero, Santa Teresa bere hizkuntzan, gaztelaniaz, irakurtzea dela normalena, eta euskaraz irakurtzeari zentzu gutxiago aurkitzen nion. Ez, behar bada, horretan sentibera garen euskaltzaleontzat, baina bai gebienentzat. Beraz, Santa Teresa euskaratzeak balio sinbolikoa baino askoz gebiagorik ez zuela zetorkidan burura... Jakina, horrekin batera, lanaren zailtasuna eta neure buruari ezartzen nion zama handia zeuden. Horrek guztiorrek atzeratzen ninduen pixka bat...*

*Santa Teresaren jaiotzaren 5. mendeurrenaren barian sortu zen gugan haren idazlan guztiak euskaraz jartzeko asmoa. Beraz, Bizitza Liburua helburu zabalago baten barruan*

*kokatu behar da. Dena dela, ia hasieratik pentsatu genuen obra hau, hain enblematikoa izanik, idazlan guztiekin batera ez ezik, berariazko eran ere argitaratzea, hizkuntza originala –gaztelania– eta euskara ezker-eskuin jarririk.*

*Goian aipatutako arrazoen beste muturrean, badaude aldeko arrazoiak eta hau batez ere: egoki eta bidezko eta ia beharrezko ikusten dela Santa Teresa euskal literaturan txertatzea eta euskal letretako zaleei haren espirituzko altxor aberatsa euskaraz eskaintzea” (CORREO: 14.03.15).*

Aita Luisek –euskaldun eta euskaltzale garenokin batera– Avilako Teresa Santuaren mendeurrena ospatzeko erarik egokiena izan dela uste du, gorago aipaturiko elkarrizketan honakoa gaineratzen baitu:

*Argi dugu eremu nabiko mugatua izango duela. Gaztelaniaz ere borrelako obrak ez dira edonoren eskuetarako, irakurle hautatu, espiritual eta ahosabai finekoentzat baizik. Dena dela, Teresaren mendeurrenean sarturik, gauza asko eratzten eta egiten dira han eta hemen: erakusketak, bitzaldiak, ekintza erlijiosoak..., baina unean uneko ospakizun eta egintzen gaintetik, balio iraunkorra izango dutenak gurea bezalakoak izango dira. Geure mugak aitortuz eta apaltasunez, baina emakume miresgarri hau euskal letretako plazara agertzea, plaza txikitxoa bada ere, ez dela gutxiestekoa uste dut; alderantziz, ekarpen ederra izango dela.*

Bada bestelako arrazoirik ere, hain zuzen ere, Avilako Santa Teresa Jesusenaren idazlanak historian zehar mundu zaballean izandako oihartzun zabala. Hainbat hizkuntzatara itzuliak izan dira, osorik nahiz banaka. Era guztietakoak izan dira, gainera, egin izan diren argitalpenak. Luzeegia izango genuke guztiak hemen aipatzea.

Julen Urkiza ikertzaileak nire esku jarritako Manuel Diego Sánchez jaunaren *Santa Teresa de Jesús –Bibliografía sistemá-*

*tica* (Editorial de Espiritualidad, Madrid 2008) liburuan datu harrigarriak aurkitu ditut. Argi eta garbi azaltzen digu Santa Teresaren lanak munduko hizkuntza handi gehienetara (latin, ingeles, frantses, italiara, portugez, alemanera...) itzuliak izan direla. Horrela, Santa Teresa Jesusenaren lan guztiak biltzen dituzten 21 itzulpen egin dira; banaka argitaratutako itzulpenen artean: *Bizitza liburua* 46 aldiz, *Perfekzio bidea* 28 aldiz, *Barne Gaztelua* 34 aldiz, *Fundazioak* 22 aldiz eta *Gutunak* 48 aldiz argitaratu dira; horietaz gainera, 90 antologia edota lan-sorta ere egin dira. Bertan Teresaren idazlanen itzulpenei buruzko 35 azterketa-lanen bibliografia ere eskaintzen da.

Hori horrela, Santa Teresa Jesusenaren idazlanek nazioartean izan duten arrakasta kontuan hartuz, inoiz baino argiago ikusi dut benetan merezi izan duela lan horiek euskaratzeak. Hori horrela, aurrerantzean euskarak toki eder bat izango du hizkuntza ugari horien artean.

## **2. Zein leku dute Santa Teresaren bizitzan bere idazlanek?**

Santa Teresak ez zituen idatzi bere idazlanak asmo literarioak bultzatuta, bide batez idazki horiek balio literario handia badute ere. Bere asmo nagusia abian jarri zuen karmeldarren erreformatoren zerbitzuan jardutea izan zen. Eta onartu egin zuen horretarako bide izan zitezkeen idazkiak idaztea. Bada-kigu, berak aitortzen du eta, halako batzuk obedientzia hutsez, gogoz kontra idatzi zituela. Beste batzuk hurbileko mojak beraren espirituzko bideak argibidetzat hartu nahirik eskatuta.

Esan bezala, beraren ardura nagusia erreformatutako mojej Jainkoaren maitasunean eta fidelitatean aurrera egiteko bideak jorratzea izan zen. Egia da, baita ere, beraren aitortza-entzuleek emakume zoragarri haren espirituzko esperientziak azalaztea eta idazteko zuen trebezia aparta bultzatu nahi izan zituztela.

Gutunek, bestalde, eguneroko beharrizanei erantzuteaz batera, darien freskotasunari esker, Santa Teresaren izaera sako-netik ezagutzeko aparteko aukerak eskaintzen dizkigute. Baita emakumeek gizarte hartan zuten egoera hobeki ulertzeko parada ere.

Barruko espirituzko bizitzari hertsiki loturiko idazkiak izanik, behin eta berriro ageri zaizkigu espresuki esanda aginduz edota erreguz idatziak izan zirela. Sarritan oso aldats gora gertatzen zitzaion, hara eta hona fundazioetan ibili beharrak eta osasun alorreko eskasiak eragozpen handiak jartzen zizkioteko. Dena dela, zailtasunak zailtasun, Teresa Santak bihotzez eta ardura handiz bete zituen inguruko agindu-erregak emaitza bikainak eskainiz. Agindu edota erregu bizi haiei esker, bizitza espiritualeko esperientziarik sakonenak eta mojabizitza era berri baten bitzeko biderik zuzenena eskaini zizkigun.

### 3. Egin ahal da lehenago ahaleginik euskaratzeko?

Mendez mende, Euskal Herrian Santa Teresaren bizitzak, erreformak eta idazkiek izugarritzko eragina izan dute. Beraren idazlanek ere aparteko lekua izan zuten, eguneroko bizitzaz aparte, karmeldarren artean batez ere sermolaritzan eta bere omenez egiten ziren elizkizunetan. Izan ere, hainbat dira hark abian jarritako bizimodu berriari jarraituz herritarrentzat erdugarri izan diren euskal karmeldar erlijiosoak. Karmeldar sermolari eta idazle ugarien berri eman nuen Santa Teresaren mendeurrenean *Hemen* aldizkariak eskaturiko idazki labur batean (Patxi Urizarren: *Santa Teresaren eragina Euskal Herriko karmeldar euskaldunengan*; *HEMEN*, 2015, 46. alea –apirilakainakain).

Hala ere, karmeldarren artean idazle handiak -esaterako Frai Bartolome- izan baditugu ere, ez dute, antza denez, Santa Teresaren idazlanak euskaraz argitaratu beharrik ikusi. Segu-



ruenik, gaztelaniaz ongi zekitenez, eta euskara erraztasun handiz menperatzen zutenez, unean-unean atalak euskaratze-ko eragozpenik ez zutelako edo, ez zuten halakoaren premia-rik sentitu.

Dena dela, XX. mendean, Espainiako gerra zibilak euskararen erabilera gizartetik zeharo ezabatu aurretik, Euskal Herriko karmeldarrek argitaratzen zuten *Karmengo Argia* aldizkarian atalka argitaratzen hasi eta ahalegin batzuk egin ziren Santa Teresaren idazlanak euskaratzen (*SENEZ*, 2015, 116-117 eta 124-105. or.). Laburbilduta honako hauek ditugu euskaratutako lanak:

1. ***Onbidea (Perfekzio-bidea)***. Lino Akesolo eta Aita Santi Onaindia *Karmengo Argian* atalka *Donekuntza-bidea* argitaratzen hasi ziren 1933an. Geroago, Aita Santi Onaindiak lana osatuz *Onbidea* argitaratu zuen 1963an Bilbon. 273 orrialdeko liburu horretan *Onbidea* eskaintzeaz gainera, beste zenbait lan labor ere ageri dira, hala nola, *Biotz-oiuak*-17 lantxo (211-234 or.), *Olerkiak*-31 olerki (236-259 or.) eta *Esanak*-69 esakune (261-266 or.). Bizkaieraz idatzita dagoz.
2. ***Egoitzak (Barne Gaztelua)***. Liburuxka hau Aita Santi Onaindiak prestatu zuen Santa Teresaren heriotzaren laugarren mendeurrena ospatzeko asmoz. *Egoitzak*, 237 orrialdeko liburuxka, 1981ean argitaratu zuen Larrean. Gipuzkeraz idatzita dago.
3. ***Santa Teresa. Bizitzea (Bizitza liburua)***. Santi Onaindiak Teresa Santaren lanak itzultzen jarraitu zuen eta, horrela, 1989an 379 orrialdeko *Santa Teresa. Bizitzea* argitaratu zuen Larrean. Bizkaieraz idatzita dago.

\* Itzultze erari dagokionez, gaur egungo ikuspegitik zertxobait aldunduta ageri zaizkigu lan horiek. Garrantzitsuena mezua zabalitzea izanik, itzulpen zehatza eskaini beharrean, zenbait une-



tan testuaren interpretazioa eskaintzen zaigu, horrela hobeki ulertzeko bideak eskaini nahiez edo. Erabilitako euskarari dagokionez, euskalkia erabiltzeaz gainera, gerra aurreko garbizatetasunaren eragina ere ageri da. Ortografia mailan ere ez du euskara estandarrena erabiltzen.

#### 4. Zein berezitasun du oraingo itzulpen honek?

Lau ditugu, nire ustez, itzulpen bikain honen ezaugarri nagusiak:

- **Garai egokia:** euskararen egoerari dagokionez garairik egokienean datorkigu itzulpen hau. Lexikologia alorrean aurrerapen handiak egin izan dira. Euskarak azken urte hauetan alor ezberdinetan egin du lekua. Euskara batua nahiko garatua izateak Euskal Herri osorako itzulpen bakarra egitea ahalbideratu du. Guzti horri esker aparteko balioa hartzen du itzulpenak batez ere etorkizunera begira burutua izan delako.
- **Une aproposa:** Avilako Santa Teresa Jesusenaren idazlan guztiak sorta bakar batean argitaratzeko unerik aproposena izan dugu beraren jaiotzako V. mendeurrena. Honelako ahalegin eta inbertsio handiak ezin dira edozein unetan egin. Euskal Herriko Nafarroako San Joakin Pro-bintziako karmeldarrok omenaldi eder bat eskaini nahi izan diogu Santa Teresa Jesusenari, beraren jaiotzaren V. mendeurrenean argitalpen bikain hau eginez.
- **Itzultzaile paregabea:** Luis Baraiazarra Txertudi, idazle eta itzultzaile euskaltzaina, pertsonarik egokiena dugu honelako lan erraldoi bat burutzeko. Sakonetik ezagutzen ditu Santa Teresaren lanak eta irakatsiak. Lanerako aparteko gaitasuna agertu izan du beti. Aparteko gaitasuna erakutsi du gai erlijiosoak itzultzen. Bera izan zen *Teresa Lisieuxkoaren* lanen itzultzaile nagusia eta euskarako koordinatzailea. Berak itzuliak ditugu

Vatikano II.eko testuak eta Benedikto Aita Santuaren hiru entziklika. Euskal idazle ziurra eta jario handikoa da. Lan ederrik ugari argitaratuak ditu euskal letren landa zabalean. Euskaltzaindiko lexikologia lantaldeko kide da. Berau izan da hainbat urtetan *KARMEL* aldizkariaren zuzentzailea. Oso ongi menderatzen du euskara batua. Beraz, pertsona aproposa honelako lan bat burutzeko.

- **Guzti horri teknologiaren aurrerakuntza erantsi behar zaio.** Aurreko ezaugarri nagusiei beste bat erantsiko nioke, hots, azken urte hauetan honelako lan mardulak egokiro burutzeko nahiz inprimatzeko bideak errazteko teknikak eskainitako aukera paregabea. Hau da, itzulpena burutzerakoan nahiz inprimategiko lana bideratzerakoan izugarritzko erraztasunak ematen dizigun ordenagailua izan dugu eskura.

## 5. Zeintzuk dira, baina, itzulpena burutzeko izandako zailtasunak?

Santa Tereresaren itzulpenari buruz ari garenez, zerbait esan beharra dugu lana burutzerako izandako eragozpen eta gainerakoei buruz. Luze izango litzateke zertzelada guztiak zehatz aztertzen jardutea. Aita Luisek han eta hemen, egindako lanari buruz galdetzerakoan emandako erantzun bartzuen atalak ekarriko ditut hona:

*Santa Teresa, karmeldarrontzat, gutxi-asko ezaguna da, baina gauza bat da oro har ezagutzea eta beste bat haren testuak itzultzea. Itzultzerakoan testu originala zebatz-mebatz ulertu eta interpretatu behar da. Behin hori egindakoan, eduki horri euskarazko janzkia jartzea errazagoa da. Une bartzuetan, itsasoan aldeko baizeaz joatea legez da, baina uste-kabeaz baizea aldatu eta zurrunbiloan sarturik ikusten dau batek bere burua. Hori, Santa Teresaren autobiografiaren ia*

*kapitulu guztietan jazotzen da; basi eta amaitu, burubauste eta zailtasun barik, nekez egiten da...*

*Argi esanda, zeintzuk dira Santa Teresaren testuetan aurkitu ditudan zailtasunak? Gaia bera da korapilatsua. Arrazoia bistakoa: haren autobiografia azaleko edozein kontaketaren guztiz kontrakoa da. Barru-barrukoa da. Bere arimaren historia. Jainkoarekin hartu-emon pertsonal eta barru-barrukoan bizi izaniko arimaren historia; aitor-entzuleentzat, honeen eskariz eta aginduz, idatziriko kontu-emote zebatz eta harrigarria. Ume-umetan Jainkoaren maitasuna barruan erne jakonean hasten da; gero, hartu-emon hareetan gaztetxo zala izan zituan gorabeherak azaltzen ditu; bere aitak disimuluz, une haretan eukan arriskutik gordetzearren, mojen barnetegi baten sartu ebanekoa eta, aitak jakin barik, bere neba bat abentura lagun ebala, goizean goiz etxetik ibes egin eta moja sartu zanekoa. Hona artekoa da, kontaketa aldetik, normalena eta euskarara itzultzeko be errazena.*

*Azkenik, goiko lerroetan aditzera emonda geratu da pixka bat, baina terminologia be barri-barria da kasu askotan. Esaterako, 'oración mental', 'oración de quietud', 'oración de unión'; 'visión', 'unión', 'arrobamiento', 'elevamiento', 'vuelo de espíritu', 'arrebataamiento', 'éxtasis'. Berak dino 'arrobamiento' dalakotik hasita jarri ditudan hitzak fenomeno beraren izen ezbardinak dirala, hau da, sinonimoak, baina jakina! berak sinonimoak darabiltzan ezker, itzultzerakoan be sinonimoak bilatu behar: arrobamiento: liluramendua; elevamiento: goraldi; vuelo de espíritu: espirituaren begaldia; arrebataamiento: gainezkaldia; éxtasis: estasia... (Karmel, 2012-1).*

*Idatzizko gogoetatxo honi ekin niñean, inauteri giroa zen. Santa Teresaren testuek gaztelaniaz erakusten dute beren izaera jatorra, gaztelania du haren obrak berezko jantzia. Beste bizkuntzetara egindako itzulpenak ez ote dira, nolabait, obra originalaren mozorroak? Hona, inauteri giroan, airean uzten dudun galdera. Eta ez nuke nahi inola ere hala izan dadin.*

*Traduttore Traditore* italierazko esaerak, itzultzaile txarrak kalifikatzen dituenak, itzulpen-abalegin bonekin zerikusirik ez izatea nabiko nuke. Ez, Santa Teresa euskarara itzultzean, ez nuke nabi euskal jantzi hau haren egiazko nortasuna ezkutatzen duen mozarroa izan dadin, originalaren isla garbia, euskaraz adierazia, izan dadila baizik.

Gure Santaren obra bikainari euskarazko janzki apain eta duina, beraren betekoa, egiten saiatu gara. Helburua lortu dugun ala ez irakurleak esan bebarko du, baina lana eta abalegina hor daude behintzat. Ez da beti erraz gertatzen: itsaso bairean leun eta gozo aurrera zoazela, bat-batean haizea harrotu eta dena kizkurtzen eta nabasten denez, hala gertatzen da hemen ere. Egungo argitalpenetan haren testuak ukitu txikiekin eta pixka bat gaurkoturik ageri dira, baina horrek ez du kentzen Teresaren zenbait esaldiren zailtasuna. Nondik datozen zailtasunak? Karmel aldizkari honetan (2012-1) Andoni Oleak niri egin zidan elkarrizketa argitaratu zen. (...) Dena dela, gure santaren estiloa bizi-bizia da; gogo-gogoan ditu bere irakurleak, oso hurbil sumatzen ditu eta haientzat idazten du maitasunez beterik, batez ere San Josereneko bere alaba karmeldarrentzat idazten duenean". (Karmel, 2013-1).

## 6. Zeintzuk dira liburu nagusien ezaugarriak?

Gai hau, dudarik gabe, Aita Luis Baraiazarrak jorratu du egokien. Hona hemen liburuen sarreretatik jasotako paragrafo batzuk:

### *Bizitza liburua*

*Berez ez da autobiografia, hitz hau ulertzen dugun eran behintzat, Teresak bere aitor-entzuleentzat idatziriko kontu-emate zabal eta zehatza baizik. Barrukoa da batez ere; gainerako kontakizuna, barruko kontuak ematearen harira datorrela eta haren osagarri dela esan dezakegu. Liburuaren izenburua ez da Teresarena; honek 'ene arima', 'liburu han-*

*dia'... erabiltzen ditu bartaz ari denean; 415. gutunean, 1581eko azaroaren 19an Pedro Castro Nerori idatziriko gutunean, berriz, 'Jainkoaren errukiena izenburua jarri nion' dio; liburu handia, liburu txiki edo liburutxo deitzen zionetik bereizteko dela dirudi; Perfekzio Bideari deitzen dio liburu txikia edo liburutxoa. Beraz, liburua izenburua frai Luis Leongok jarria da, 1588an, Teresaren obren lehen edizioa egin zuenean.*

*Gaur eguneko aditu batzuek uste dute, berak noizbehinka bestelako adierazpenak egin arren, Teresak ederresten zuela bere idazteko era eta ez zuela gogoko inork han eskua sartzerik ez aldatzerik. Hau idazkerari dagokionez zen, noski, ez doktrinari dagokionez. Ana Jesusenak dio, bark bere obren kopia batzuk hainbat hitz aldatu ikustean, protesta egin zuela: 'Jainkoak barka biezaie nire aitor-entzuleei, niri idazteko agindu zidatenaren kopiak eginez, hitz batzuk aldatzen baitituzte; izan ere, honako hau eta hau ez dira nireak. Eta gero haiek ezabatu eta lerro artean aldatu zuten hitza idazten zuen bere eskuz.*

### *Perfekzio bidea*

*Perfekzio bidea, Avilako San Josereneko mojen eskariari men eginez burutu zuen. Hau da, Bizitza Liburua, Jainkoak egiten zizkion mesedeen eta ariman gertatzen zitzaizkion gauza ezohikoen kontu aitor-entzuleei emateko idatzia zenez gero, San Josereneko abizpek ez zuten hartarako sarbiderik eta Teresa beren amaren lanak irakurtzeko irrika biziz zeuden, ezinbestean. Obra honi autoreak berak eginiko hitzaurrearen aurreko oharrean hitz hauek ageri dira:*

*(...)Liburu hau, Teresa Jesusenak, gure Jaunaren eta Jainkoaren Ama Birjina aintzatsu eta gure Amaren laguntzaz, Karmengo Amaren hasierako Erregelaren arabera fundatu zituen monasterioetako abizpa erlijioso bere alabei emandako abisu eta abolkuez, ari da.*

*Liburu hau idaztean, Teresa gogotsuago dago eta bere burua gai ikusten duela dirudi, bere alaba moja karmeldar oinutsei, batez ere Ávilako San Josereneko mojei, otoitzaz eta perfekzio-bideaz irakaspen probetxugarriak emateko. Alde batetik, esperientzia eta jakintza praktiko handia bildu du otoitz bideetan; bestetik, monasterioko bere alabek maite dute eta maitasunak zoztor guztiak kentzen ditu(...). Hona goiko lefroetan idatzi ditudan ideia horiek Teresaren beraren bitzetan: “Haiek didaten maitasun handiak, akastuna eta halaholako idazkeran adierazia izan arren, oso ongi idatziak dauden eta zer idazten duen dakienaren liburu batzuk baino ere onargarriago egin dezake.*

*Teresa bera ere tentsio espiritual handian bizi zen garai horretan. Seigarren egoitzetako zebarkaldian ziboan, barne-bultzada bizi eta maitasun-gainezkaldi artean, beste bizitzara porturatzea ia begi bistan zuela: “Nik uste dut Jaunak hau amaitzea nabiko duela noizbait, orain bezala gauzak aurrera badoaz, bizia amaitzearekin batera, hain oinaze handia nabiko baita horretarako, baina nik ez dut merezi” (Bizitza Liburua 20,13).*

*Lagunarteko estiloa du; Irakurleekin bizketan ari balitz bezala idazten du; idazten duena bizitzarekin lotzeko asmo finkoa erakusten du; ez du idazten kontzeptuetatik, bizi izaniko esperientziatik baizik; Ebanjelioaren mezua du ore arimen janaria moldatzeko, eta Elizaren ona beti ikusmiran, misiolari-espiritua eragile duela.*

### *Barne Gaztelua (Egoitzak)*

*Aita Luisek diosku: “Barne Gaztelua egilearen goi-mailako irakaspena da. Haren lurreko azken etapako fruitu heldua, haren bizitza espiritualaren bilakaeran behin betiko fasea, aurreko bi obren, ‘Bizitza Liburuaren’ eta ‘Perfekzio bidearen’, mezua osatzera datorrena. Hemen kontaera autobiografikoa estaliagoa da, anonimoagoa, eta bizitzako azken ha-*

*markada ere hartzen du, baita Bizitza Liburuak hartzen ez dituen grazia mistikoak ere. Era berean, Perfekzio bidean darrabilen irakasbidea gainditua geratzen da hemen, hau da, bizitza espiritualaren hasieran, trebatze aldian, nabari ziren duda-mudak, atzera-aurrera eta ihunaldiak atzean utziak dira, misterioaren barne-barnean murgiltzeko.*

Santa Teresak berak diosku: *Obedientziak agindutako gauzetatik gutxi gertatu zaizkit, otoitzeko gauzez orain idaztea bezain zail; alde batetik, uste dudalako Jaunak ez didala ematen hori egiteko espiritua ezta gogoa ere; bestetik, orain dela hiru hilabeterik bona burua hain burundara eta abulezia handiekin dut, non behar-beharrezko gauzetarako ere neke handiz idazten baitut. Hala ere, obedientziaren indarrak ezinezkoak diruditen gauzak erraztu egiten dituela kontuan izanik, borondateak egitera jotzen du oso gogo onez, berezko izaerak hartan neke handia hartzen duela dirudien arren (Hitzaurrea, 1).*

*Hemen doan hau idazten hasi nintzenean, hasieran esaten dudan gogo txarrez izan bazen ere, amaitu dudanean egundoko poza eman dit eta ontzat ematen dut horretan izandako nekea, oso txikia izan dela aitortzen badut ere. (...) Uste dut pozgarri gertatuko zaizuela barne-gaztelu honetan atsegin hartzea, nagusien baimenik gabe sartzeko eta edozein ordutan bertan paseatzeko aukera baituzue (Barne Gaztelua; Epilogo).*

### *Fundazioak eta Gutunak*

Aita Luisek *'Haren dobainak, humanismoa batez ere 'Fundazioetan' eta 'Gutunetan' antzematen dira'* diosku. Eta egia esan Fundazioen kroniketan eta bere gutun ugarietan ageri zaigu Avilako Santa Teresa Jesusenaren alde gizatiarra. Otoitz girotik at izan zituen bizipenak, harremanak, eztabaidak, kezkak, hartutako erabaki zailak, emandako gomendioak, etxe berriak sortzerakoan erabilitako irizpideak, hiri batzue-



tan, esaterako Madriden, fundazioa egiteko biderik ezin lortu izatea, Gaztelako bideetan eta herrietan izandako zenbait pasadizo, etxeak eraikitzeke egin beharreko kudeaketa administrazioak, lana burutzerakoan izan zituen adiskide minen eta etsaien berriak.

Bizitzea tokatu zitzaion garaiko alaba zenez, eta ingurumaria zehatz batean ibili behar izan zuenez, gorabehera ugari bizi izan zituen. Garaiko batzuk emakume 'egonezina' zela esateraino helduko ziren. Bestalde, oso esker onekoa zenez, bazekien bere bihotzeko sentimendurik ederrenak aditzera ematen. Guzti hori, esan bezala, Fundazioetako kronika-mota berezian eta, nola ez, kontserbatzen diren bere laurehundik gorako gutun-sortan ageri zaigu.

Aparteko aipamena merezi dute emakumeen hain leku eskasa zuen gizartean Teresak erakusten duen ausardiak eta trebeziak. Ezker eskua trebetasun handiz erabili zuen arazo artean helburuak lortzeko, bidean aurrean jartzen zitzaizkion oztopo guztiak gainditzeko. Teresaren nortasuna eta gizatasuna batez ere etxe berriak fundatzerakoan eta hona eta hara idatzi zituen gutunetan ageri da.

## 7. Nola antolatuta argitaratu da liburua?

Lehen eta behin esan behar dugu *Santa Teresa Jesusenaren Idazlan Guztiak* jasotzen dituen liburu hau *Karmel Sorta* bildumako 14. liburukia dugula. Era berean gogora dezagun, bide batez, sorta horretan argitaratuak ditugula, besteak beste, karmeldarrokin lotura estua duten lan eder hauek: Lino Akesoloren *Lan guztiak* (KS-1); Santi Onaindiaren *olerkiak* (KS-2); *Karmeldarrak Markinan* (KS-3); Teresa Lisieuxkoaren *Idazlan guztiak* (KS-8); Frai Bartolome Santa Teresaren *Idazlan guztiak* (KS-12). Beraz, sorta horretako liburuen neurrietara egokituta datorkigu.

Liburuaren antolaketaren eta bertako hainbat gehigarri eta eranskinen prestatzailea Aita Julen Urkiza izan dugu. Bere lanari esker aparteko eraketa izan du liburu onek, izugarritzko gainbalioa jasoz. Itzulpen guztiak Luis Baraiazarrarenak izan arren, liburuaren antolaketan nahiz burutu ahal izateko laguntza materialean laguntza ezinbestekoa eskaini dio Julenek. *Karmel Sorta* bildumako gainerako liburuki guztiak bezala bere esku izan da inprimategiko lana: papera aukeratzea, banaketa prestatzea, zuzenketak eta bideratzea eta abar luzea. Nekez atera ahal izango zen ahalako liburu eder bat bere laguntza oparo hori gabe. Honela dugu antolatua:

**Azala:** Juan Mari Arrizabalaga jaunak prestatua dugu. Vatikanon Ordena erlijiosoaren fundatzaileei eskainitako irudia eta Euskal Herrian agertutako Santa Teresaren azken gutunaren testu zatia jasotzen ditu. Atzealdean Santa Teresaren aurpegi itxuraldatua ageri zaigu

**Gehigarriak:** *Aurkibide Orokorra* (7-8 or.); *Atariko agurra* (9.10 or.); *Aitzinsolasa* (11-12 or.); *Sarrera Orokorra* (13-20 or.); *Teresaren kronologia* (21-34 or.).

**Idazlanak:** gaika sailkatuta:

- Barne-kontakizunak: *Bizitza Liburua* (37-304 or.).
- Liburu pedagogikoa: *Perfekzio Bidea* (307-445 or.).
- Teologia mistikakoa: *Barne Gaztelua* (451-601 or.).
- Narrazio-generoa: *Fundazioak* (605-785 or.).
- Barne-kontakizunak: *Arimako kontakizunak* (789-844 or.).
- Glosa biblikoa Kantarik Ederreneko zenbait bertsoari: *Jainko-maitasunari buruzko gogoetak* (847-883 or.).
- Bakarrizketako liburutxo bat, otoitz edo salmo antzera osatua: *Arimaren bibotz-oibuak Jainkoari* (887-905 or.).
- Testu arautzaile eta juridikoak: *Konstituzioak* (909-928 or.), *Komentuak bisitatzeke era* (932-944 or.).

- Aforismo antzekoak, herri-jakintzatik jasoak: *Abisuak* (945-950 or.).
- Umorezko bi lantxo: *Kritika umorezkoa* eta *Erronka bati emaniko erantzuna* (951-958 or.).
- Pentsamenduak, apunteak, oroitidazkiak (958-971 or.)
- Olerki sorta txiki bat: lirikoak, mistikoak, jai girokoak (975-1010).
- Gutun sorta ugaria (1013-1772 or.).

**Eranskinak:** *Liburu honetako hiztegitxoa* (1775-1785 or.);  
*Aurkibide biblikoa* (1787-1791 or.); *Izenen aurkibidea*  
 (1793-1830 or.); *Aurkibide orokorra* (1831-1852 or.).

## 8. Zer irakur dezakegu aurkezpen-lerroetan?

Honelako liburuen sarrerek aparteko garrantzia izan ohi dute barruko arnasaz jabetzen laguntzen digutelako. Santa Teresaren idazlanak irakurri eta gozatzeru hurbiltzen denak oso komenigarri izan ohi du sarrera orokorra eta liburu bakoitzari egindakoa irakurtzea, bertan agertu izaten direlako testua ongi irakurri eta gozatu ahal izateko hari nagusiak.

Lan honi amaiera emateko liburuaren hasierako lerroetan ageri zaizkigun paragrafo esanguratsu batzuk eskaini nahi dizkizuet, lan osoaren nondik norakoez egokiago jabetzeko bide izango dituzuelakoan.

\* \* \*

*Hona liburu batean bildurik bibotzez maite ditudan bi. Maite dut santa Teresa eta maite dut euskara. Horregatik, oso pozik nago santa Teresaren idazlanak euskaraz ikusterakoan.*

*Erljioa eta fedea, bakoitzaren familian, barruko esperientzian hazten, sakontzen eta lantzen dira. Ama-bizkuntza seme-alabei ematen zaien bezala.*

*Karmeldar euskaldun askok lan bikaina egin dute santa Teresaren pentsamendua, Jainkoarekin zituen harremanak, loturak aztertu, ezagutu eta gure gizartearen ezagutarazteko.*

*Gaur egun geure aurrean dugu abalegin horren emaitza eder bat: santa Teresaren idazlanak euskaraz.*

*Honek, jakina, abiapuntu bat izan beharko luke, Euskal Herrian ere santa Teresaren mezua gero eta gehiago ulertu, sakondu eta zabal dadin (Jon Aristondo, Euskal Herriko karmeldarren probintziala: Atariko agurra; 9. or.)*

\* \* \*

*Hona hemen, irakurle abisatuaren eskura, Avilako Santa Teresaren lan osoak eta mardulak, era-erara eta gaztelaniatik euskarara biburtuak. Jakina denez, mistikoen artean lehen-lehenetarikoa da Gaztelako Santa eta bertako hizkuntza erabili zutenen artean, goi mailakoa ere. Urrezko letrekin jaso obi da haren testugintza literatura liburuetan. Gutxiagorako ere ez da, historiaren oihartzunetan haren lana ezaguna eta eredugarria baita Espainiako XVI. mendeko historian.*

*Berriz pizten da orain Santa Teresa, eta argitara dator, askoren nabiaeren arabera. Nolanabi ere, oraingoan berritua eta euskaratua dator, historian lehenbizi bere osotasunean, Karmel sortaren bilduman.(...)*

*Egin-eginean ere, Baraiazarrak itzulpen honetan eskaintzen duena ez da bakarrik Santa Teresarena, ez bada euskara bera ere egoki apaindua eta gaurko erara emana, hain zuzen, euskarazko hizkuntza mistiko eta erlijiosoaren espresa molde garaikoa. Edu horretako opari ederra egiten die euskarari eta aldi berean euskal letrei.*

*Noizbait eta nonbait zehaztu beharko balitz Baraiazarrak lan honetan erabili duen itzultze teknika, honetara emango litzateke: alde batetik, joskera aparta, perpausetik perpausera irakurlea bera eramaten duena inolako zailtasunik gabe; beste aldetik, lexiko jatorria, inolako garbizalekeriarik gabekoa. Bi-biok osatzen dute Baraiazarraren testugintza, halako poetikotasuna erdietsi eta irakurlearen*

*jakin mina eta gogoia erakartzen dituen.* (Andres Urrutia, euskaltzainburua: *Aitzinsolasa*; 11-12 or.)

\* \* \*

*Santa Teresa bezalako emakume bat (bain handia eta bain barrigarria) euskal letren plazara ez agertzea, hutsune larria izango litzateke.*

*Itzulpena esaten dugu, hitz bakar batez eta nolabait adieraztearren; baina itzulpen soila baino gehiago eskatzen zaigu. Santa Teresa euskalduntzea, geurera ekartzea, erdal urak euskal ur biburturik, gure ubarkara eta gure moldeetara bideratzea. Bestalde, honelako lan bati ekiten diogunean, apurka-apurka eta ia konturatu gabe, pertsonaiaren barruan sartzen gara, edota pertsonaiak berak hartua ikusten dugu geure burua eta, Santa Teresaren kasuan, zein handia den konturatzen gara; barenganako mirespena sortzen da.*

*Une batzuetan ulertze arazoak sortzen dira, Teresa subjektuen elipsiaz asko baliatzen delako; hau da, oso sintetikoa da. Bestalde, eskuarki gaztelaniaz irakurtzeko eta oro har ulertzeko eragozpenik ez denez gero, azpiko oharretan ez da argibiderik ematen. Baina itzultzerakoan testu originala zehatz-mehatz ulertu eta interpretatu behar da. Behin hori egindakoa, eduki horri euskarazko janzkia ezartzea errazagoa da. Liburu batzuetan darabilen gaia bera da ezohikoa, barnealdera begiratzekoa eta zail samarra. Gutunetan, berriz, bera eta berarekin harremanetan zeudenak egunera bizi ziren eta ongi ezagutzen zuten ingurumaria eta testuingurua. Guri, ordea, ezezagun gertatzen zaigu askotan. Hor dago beste zailtasun bat ongi interpretatzeko.*

*Obra honen amaieran, definiziodun biztegi txikitxo bat joango da, erabili diren hitz eta termino behinen batzuen esanahia adieraziz.* (Aita Luis Baraizarra, itzultzailea: *Sarrera orokorra*; 13-20 or.)

*Patxi Uribarren Leturiaga*